


H LH3

2016/2017



Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data

Irakurmena

LHko 3. maila

1. zatia



Probaren lehen zati hau
egiteko 45 minutu dituzu.

Jarraibideak

Proba honetan testu bat irakurriko duzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Ondoko 4 urtarotatik, zein da hotzena?

- A. Udaberria.
- B. Negua.
- C. Uda.
- D. Udazkena.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Ondoko 4 urtarotatik, zein da hotzena?

- A. Udaberria.
- B. Negua.
- C. Uda.
- D. Udazkena.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....

Galdera batzuk errazak dira eta beste batzuk zailagoak. Galderaren bat ulertzen ez baduzu, besteei erantzuten segitu ahal duzu, eta geroago, saiatu erantzun gabe utzitakoa egiten.

Gizon indartsuen lurraldea da Burunda. Azkeneko **jentilak** ere bertan bizi omen ziren. Altsasuko Hartza ahizpek kontatutako ipuin honetan, ordea, ikusiko dugu gizonak ez ezik emakume indartsuak ere bazirela Nafarroako eskualde honetan.

EMAKUME INDARTSUA



Orain dela urte asko Altsasu herri txiki bat zenean gertatu omen zen istorio hau. Garai hartan herriko etxe guztiei jartzen zitzaien izena. Gaur egun ere, herri txikietan batik bat etxeek izena izaten dute: Josenea, Arotzarena, Iturrikoa, Matsanea, Berrizaun... eta beste hainbat eta hainbat. Etxe horietan bizi zirenek etxearena hartzen zuten: Martin Iturrikoa, Joanes Goikoetxekoa,

Pelloneko Joxe.... Gure ipuineko etxeak ere izena zuen, noski, eta bertan bizi ziren anai-arrebek izen hori hartzen zuten.

Altsasuko herriaren bazter batean zegoen “Hamalau” deitzen zuten etxea. Ahal handiko **indardun** bat bizi omen zen bertan bere arrebarekin.

Giza neurritz kanpoko indardun haien **ospea** bazter guztietara zabaldu zen, dirudienez, eta halako batean, arreba Zangitun **goldean** ari zela, gizon arrotz bat agertu eta:

- “Hamalau” non bizi da?- Galdetu zion.

Emakume hark goldea lurrean sartuta idiak geldiarazi, esku batekin idiak bere goldearekin jaso, eta beste eskuarekin etxea erakutsiz, hitz bakar batekin erantzun omen zion:

- Han!



HIZTEGIA

Jentila:

Antzinako gizon handi eta indartsua.

Indarduna:

Indar handikoa.

Ospea:

Fama.

Goldea:

Lurrari buelta emateko makina.


Gizon indardunaren famak zioena benetan hala zen ikustera etorria zen bisitaria, baina emakumearen ahalmen hura ikusita txundituta gelditu omen zen esanez:

- Arrebak halako indarra baldin badu, zer izango da delako "Hamalau" hori?

Eta besterik gabe buelta hartu eta "Hamalau" ikusi gabe joan omen zen gure gizona etorri zen bidetik.

- Zoaz nondik zetorren jakitera!

EMAKUMEAK IDIEKIN GOLDEAN



Mattin Mottela. Sakanako Ipuinak. Jose Maria Satrustegiren liburutik moldatua.

1. Non bizi omen ziren azkeneko jentilak?

- A. Sakanan.
- B. Burundan.
- C. Altsasun.
- D. Nafarroan.

2. Noiz gertatu zen kontatzen zaigun istorioa?

- A. Orain dela urte gutxi.
- B. Gizon-emakumeak indartsuak zirenean.
- C. Altsasu herri txiki bat zen garaian.
- D. Okerrak dira aurreko hiru aukerak.


3. Nortzuk bizi ziren “Hamalau” etxean?

- A. Altsasuarrak.
- B. Pelloneko Joxe.
- C. Hartza ahizpak.
- D. Anai–arreba indardunak.

4. Non zegoen kokatuta “Hamalau” etxea?

- A. Herri erdian.
- B. Herri bazterrean.
- C. Herritik aldentuta.
- D. Zangitun.

5. Lotu gezi batez ezkerreko eta eskuineko osagaiak ideiak modu zuzenean osatzeko:



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hiru loturak zuzen.

6. Zergatik uste duzu joan zela gizon arrotza Altsasura?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hauetako edozein: - “Hamalau” ezagutu nahi zuelako. - Gizon indartsua ikusi nahi zuelako. - Gizon indardunaren famak zioena benetan hala zen ikusi nahi zuelako. - “Hamalau” horren gizon indartsua zela egiaztatu nahi zuelako. - ...

7. Zer da zure ustez “arrotza”?

- A. Kanpotarra.
- B. Egurra lantzen duena.
- C. Jateko bat.
- D. Herrikoa.

8. “Ahal handiko indarduna”, nor da?

- A. Isterioko emakumea.
- B. Jentil bat.
- C. Kanpotarra.
- D. “Hamalau” etxeke gizona.

9. Zer esan nahi du “esku batekin idiak bere goldearekin jaso”?

- A. Idiak eta goldea lurrean erorita zeudela eta zutik jarri zituela.
- B. Idiak eta goldea bazterrean utzi zituela.
- C. **Idiak eta goldea esku bakarrarekin lurretik altxatu zituela.**
- D. Idiak eta goldea elkartu zituela.

10. Testua bi zatitan banatuta dago. Zeintzuk dira zure ustez?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Sarrera eta ipuina.

11. Ordena itzazu pasarte hauek istorioaren arabera (1etik 4ra).

- 4** “Hamalau”-ren arrebaren indarra ikusi eta joan egin zen.
- 1** Burundan jentil indartsuak bizi ziren.
- 3** Gizon arrotz bat etorri zen “Hamalau” ezagutzera.
- 2** Garai hartan etxeek izena izaten zuten.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Lau zenbakiak zuzen.

12. Ze beste izenburu jarriko zenioke kontakizunari?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Kontakizunaren haria galtzen dutenak edo zentzurik gabeko izenburuak.
1	Hauetako edozein: <ul style="list-style-type: none">- Protagonistekin edo tokiarekin zerikusia duten izenburuak (Altsasuko indartsuak, "Hamalau", "Hamalau"-ren arreba,...).- Kontakizunaren nondik norakoa adierazten dutenak (arrotza eta "Hamalau"; Kanpotar beldurtia; "Hamalau"-ren arreba; Arreba indartsua,...).- ...

13. "Zoaz nondik zetorren jakitera" esaten du amaieran. Zer esan nahi du?

- A. Bazekiela nongoa zen kanpotarra.
- B. Urrutikoa zela kanpotarra.
- C. Kanpotarrak ez zekiela nongoa zen.
- D. Altsasukoa zela kanpotarra.



HEMEN BUKATZEN DA LEHENENGO ZATIA

**Ez pasa hurrengo orrialdera
irakasleak esan arte.**



H_{LH3}

2016/2017

Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data

Irakurmena


LHko 3. maila

2. zatia



Probaren bigarren zati hau egiteko 45 minutu dituzu.


25 ARRAZOI KIROLA EGITEKO



Kirola egitea zergatik den ona argituko dizu liburu honek. Bere helburu nagusia jendea kirola egitera animatzea da. Kirola dibertigarria eta osasungarria ere badela erakutsi nahi digu.

Hona hemen kirola egiteko lehenengo 5 arrazoiak:

- 1. Gogo aldartea:** ariketa fisikoa askotan egiten dutenek umore hobea eta gauzak egiteko gogo handiagoa izaten dute.
- 2. Autoestimua:** kirolari esker, geure buruaz dugun irudia hobetzen da. Besteen aurrean beldurrik gabe agertzen gara, berdin da jolasean, lanean, ikasten,...
- 3. Bizi-kalitatea eta ongizate psikologikoa hobetzen ditu:** kirola maiz egiten badugu alaiago eta osasuntsuago biziko gara.
- 4. Osasun mentala:** ariketa fisikoa erregulartasunez egiteak eguneroko zailtasun eta arazoei aurre egiten ikasten laguntzen digu.
- 5. Estresa:** kirola egiten dutenek estres gutxiago dute, arrisku eta zailtasunen aurrean lasaitasuna hobeki mantentzen dute.



TESTUA: Luis M^a Zulaika eta Maite Muñoa

IRUDIAK: Julian Tokero

(Moldatua)

14. Zer da “osasuntsu” egotea?

- A. Gaixo egotea.
- B. **Burua eta gorputza ongi izatea.**
- C. Kirol asko egitea.
- D. Pozik egotea.

15. Zer bi argudio ematen ditu liburuak kirola egitea ona dela erakusteko?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Dibertigarria eta osasungarria dela.

16. Idatz itzazu kirola egiteko aipatzen diren 4 arrazoi.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Letra lodiz dauden 5 arrazoietatik 4 arrazoi aipatzen ditu.

17. Testuan “ariketa fisikoa” aipatzen da. Zein da testuan agertzen den hitz baliokidea?

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	“Kirola”.

18. Zer esan nahi du “maiz” hitzak?

- A. Oso gutxitan.
- B. Inoiz ere ez.
- C. **Askotan.**
- D. Noizean behin.

19. Nork egin ditu liburu honen irudiak?

- A. Luis Mari Zulaikak eta Maite Muñoak.
- B. **Julian Tokerok.**
- C. Maite Muñoak bakarrik.
- D. A, B eta C okerrak dira.



Fitxa

- **Izena:** Arrano beltza.
- **Izen zientifikoa:** *Aquila chrysaetos*.
- **Tamaina:** 70-80 cm luze.
- **Hego luzera:** 2 metro inguru luze.
- **Pisua:** 4-5 kilo inguru.

Arrano beltza

Arranoen errege

Euskal Herrian den arranorik handiena da arrano beltza. Hegazti bizkorra eta indartsua da. Zerutik ikusten duen harrapakina ehizatzen, abiada bizian amiltzen da haren gainera



- **Umealdia:** 2-3 arrautza erruten ditu emeak, aldiko. Arrautzak hilabete eta erdiz txitatu ostean jaiotzen dira kumeak.
- **Bizi itzaropena:** 50 urte inguru.
- **Jatekoa:** Jaiotzean, hegaztiak jaten dituzte; gero, hegaztiak ez ezik, ugaztun txikiak, narrastiak eta sarraskiak ere.
- **Bizilekua:** Basoak eta zelaiak ugariak diren ingurune menditsu eta bizi dira. Arabako mendietan eta Pirinio inguruan bizi dira Euskal Herrian. Euskal Herriatik kanpo, ia mundu osoan: Ipar Amerikan, Eurasian, Afrika iparraldean... Azken urteetan, asko gutxitu da Europako kopurua.

Mantangorri aldizkaritik hartua (Moldatua).

20. Euskal Herrian, non bizi da Arrano Beltza?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Arabako mendietan eta Pirinio inguruan.

21. Zer esan nahi du ondoko esaldiak?

“Zerutik ikusten duen harrapakina ehizatzeko, abiada handian amiltzen da haren gainera”

- A. Animalia bat ikusten duenean hegan botatzen dela bera harrapatzera.
- B. Harrapakina ikusten duenean erori egiten dela.
- C. Zerutik hegan dabilenean animaliak ikusten dituela.
- D. Zeruan dabilzan animaliak bakarrik harrapatzen dituela.

22. Arrano Beltzaren tamaina...

- A. 70-90 cm-ko luzerakoa da.
- B. 2 metro ingurukoa da.
- C. 70-90 metrokoa da.
- D. Aurreko hirurak zuzenak dira.

23. Umealdian:

- A. 2 arrautza erruten ditu emeak.
- B. 2-3 arrautza erruten ditu arrak.
- C. Hilabete erdiz txitatu ostean jaiotzen dira umeak.
- D. 2-3 arrautza erruten ditu emeak.

24. Adieraz ezazu Arrano Beltzaren jateko bakoitza dagokion zutabeen. Horretarako, erabili zenbakiak (1etik 6ra):

(1) Arrainak

(4) Intsektuak

(2) Sarraskiak

(5) Ugaztun txikiak

(3) Hegaztiak

(6) Narrastiak

ARRANO BELTZAREN JANARIA	
JAIOBERRITAN	ONDOREN
3	2, 3, 5 eta 6

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Jateko guztiak ongi sailkatzen baditu.



Heziketa. www.guraso.eus

25. Komunean dauden hiru neskek...

- A. Hirurek alua dute.
- B. **Batek zakila du eta beste biek alua.**
- C. Hirurek zakila dute.
- D. Bik zakila dute eta batek alua.

26. Zergatik harritu da buruan zapi gorrixka duen neska?

- A. Dutxan zakila duen neska bat ikusi duelako.
- B. Mutilen komunean dagoela iruditu zaiolako.
- C. Ile luzea duelako Laiak.
- D. Ezagutu dituenen bi mutil zirela uste zuelako.

27. Zergatik esan du “Baina berehala konturatu naiz oker nengoela”?

- A. Nesken komunean dagoelako.
- B. Laia zakila duen neska dela konturatu delako.
- C. Hiru neskak berdina direlako.
- D. Laia mutila delako.

28. Aukeratu zuzena dena:

- A. Neska guztiek alua dute.
- B. Mutil guztiek zakila dute.
- C. Alua duten mutilak eta zakila duten neskak ere badaude.
- D. Aurreko hirurak okerrak dira.

29. Zer ikasi du buruan zapi gorrixka duen neskak? Eta ile hori motza duenak?

.....

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Bietako bat adierazten dute.
2	Biak adierazten dituzte: - Alua duten mutilak eta zakila duten neskak daude. - Ile motza askoz erosoagoa da luzea baino.

Lehen Hezkuntzako 3. maila				
Irakurmena				
	Galdera	Mota	Erantzun zuzena	Gehienezko puntuazioa
EMAKUME INDARTSUA	1	Itxia	B	1
	2	Itxia	C	1
	3	Itxia	D	1
	4	Itxia	B	1
	5	Ireakia	-----	1
	6	Ireakia	-----	1
	7	itxia	A	1
	8	Itxia	D	1
	9	Itxia	C	1
	10	Ireakia	-----	1
	11	Ireakia	-----	1
	12	Ireakia	-----	1
	13	Itxia	B	1
KIROLA EGITEKO 25 ARRAZOI	14	Itxia	B	1
	15	Ireakia	-----	1
	16	Ireakia	-----	1
	17	Ireakia	-----	1
	18	Itxia	C	1
	19	Itxia	B	1
ARRANOEN ERREGE	20	Ireakia	-----	1
	21	Itxia	A	1
	22	Itxia	A	1
	23	Itxia	D	1
	24	Ireakia	-----	1
	25	Itxia	B	1
LAIA	26	Itxia	A	1
	27	Itxia	B	1
	28	Itxia	C	1
	29	Ireakia	-----	2
			Oso tara	30